

Zorigaiztoak zizelatutako gizona

Lontxo Oihartzabal

E

El Nacional egunkari izan zen Martinen ipuingintza estreinatu zuena, 1955ean antolaturiko narrazio laburren lehen saria berak irabazi baitzuen. Ondorengo urteetan literatura-mota horretan eskuratu zituen sariak Ugalderekin ospea alde guztietara zabaldu zuten. Eta 1957an argitaratu zuen bere lehen narrazio-liburua, *Un real de sueño sobre un andamio* izenburuarekin. 1958an Caracasko Euskal Etxeak deituriko ipuin-lehiaketako lehen saria berari eman zioten *Iltzalleak* euskarazko ipuinagatik. Kutsu biografikoa duen ipuin-liburua da azkena kaleratu duena, *Erretiradako tren* izenburuz.

Literaturaren eremu asko jorratu izan du Martinek, bai euskaraz, baita gaztelaniaz ere. Eredugarria elkarrizketaren eremuan bere *Hablando con los vascos* liburua. Zenbait aldizkari eta egunkaritarako zuzendari izana da Venezuelan hamazazpi urte luzez.

Deia egunkaria sortu zenean zuzendariorde eta bertako euskal taldearen arduradun ere bera izan zen. Ezin ahaztuko dugu EUSKALDUNON EGUNKARIA hau bera sortzerakoan buru-belarri ibilia zela Martin eta Administrazio Kontseiluko lehendakari izendatu zutela. Hainbat abertzale garbi eta santuren mespretxua jaso behar izan zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAri eskaini zion laguntzagatik!

Politikagintza

Andoainen eskura zitzakeen informazio puntualak biltzea eta zegokionari pasatzea izan zuen lehen eginkizun politikoetako bat soldadutzatik itzuli orduko. Sabotaje-ekintzaren bat prestatzeko asmoz ere ibilia zen, baina ez zuen ezer burutu ahal izan. Horretan zebilela, Venezuelarako bidea hartu zuen amarekin 1947an.

Caracasera iritsitako urte berean afiliatu zen EAJn, eta hiri bereko Eusko Gaztedi taldea sortu hurrengo urtean. Lan hauetan iaioa, nonbait, gizona, eta EAJko Hego Ameriketako batzordeko lehendakari izan zioten 1948an, eta *Euzkadi* aldizkariko ardura nagusia bi urte geroago. Baina Euskal Herria izan da beti Martin Ugalderekin ametsa eta helburua. Hiru seme-alabak ere hazten zetoze eta Irunen kokatu zen Anamari, bere emazte saiatua, mutikoa eta bi neskekin 1967an. Bi urte beranduago iritsiko zen aita eta senarra. Ajuriagerraren taldean aritu zen bera EAJko batzorde eraginkorreko kide moduan Hondarribira etorri eta urtebetera.

1972-1975 urteen bitartean Leizaola lehendakari zaharraren gobernu-taldean jardun zuen Iparraldean, baita *Alderdi* aldizkari klandestinoaren zuzendaritzan ere.

Ez zen, ordea, hor amaitu Martinek herrigintzari eskainitako ahalegina. Venezuelan hasi zuen euskararen aldeko bere lan eskerga ezaguna zen euskalgintzan zebiltzanen artean (Euskaltzaindikoko urgazle zen eta 1966 ezkerotik *Zeruko Argia*-n ezagunak egin ziren bere kolaborazioak), eta 1982an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean euskara-gaietarako zuzendaritza kargua hartu zuen. Hiru urte geroago EAJ eta EAren arteko zatiketa gauzatu zenean, Karlos Garaikoetxeari jarraitu zion Martinek, eta hor amaitu ziren bere ardura politiko ofizialak.

Bere politikagintza guztian zehar elkarrizketazale eta ikuspegi zabaleko agertu da andoaindarra. Bertatik ezagutu dutenen aitopenen arabera, pazientzia handiko gizona da, baina bere iritzia kontrastatu, eztabaidatu eta arrazoituei zuzen jarraitzen dakiena, eta goragotik zetozkion orientabideak kritikoki aztertzen zituena.